

# Lingua Navarrorum

• JUAN SAN MARTIN •

[EUSKALTZAINA]

**E**uskararen ostarreak (1998) izenburuz agertu nuen liburuan ageririk aski ematen nuen nafar-euskarari buruz, eta legezko zait haietako batzuk gogoratzea, nafar euskaldunek jakin ditzaten.

Egia da Nafarroako erregetzan, *Lingua Navarrorum* aipatua gorabehera, bertako administraritzako erabileran, latina eta nafar-erromantzea izan zirela nagusi hizkuntza ofizial gisa. Florencio Idoatek, bi funtzionario 1415. urtean elkarri euskaraz egin zioten gutun bat azaltzean erakusten zuenez, gogozkoa eta ziurrenik ulerterrezagoa zitzaielako zela. Ikus *Una carta del siglo XV en vascuence, Fontes Linguae Vasconum studia et documenta*, 2. zenbakia (1969), 287-290 orrialdeak.

Egile berak agertzen digunez, XV. mendean azken aldera agertzen omen dira notari protokoloen bat edo beste epaiketa agerietan lekukoen hitzak euskaraz idatziak; aldiz, herri askotan batzarreak euskaraz zein nafar-erromantzez egiten omen ziren, baina ageriak idatziz jasotzean bigarren horretan egiten omen zen. Hala dakar *Esfuerzo bélico de Navarra en el siglo XVI (1981)* liburua 218-228. orrialdeetan. Ez dezagun ahaztu XVI. mendean Nafarroa gehiena euskalduna zela Erribera inguruko mugetaraino. Hala erakusten digu Iruñeko Apezpikutegiaren 1587. urteko herri zerrendak. Ikus Manuel Lekuonak aurkitu eta argitara eman zuen ageri hura, *El euskera en Navarra a finales del s. XVI, RIEV*, 1923, 365-74. orrialdeetan.

Baina, *Lingua Navarrorum* zer zen jakiteko, inork zalantzarik izan ez dezan, on zaigu ageriak lekuko jartzea.

Iruñako apezpiku zen Petrus II. ak 1167. urtean Beila kondearekin Aralarako San Migel santutegiaren Arimeriako aziendaz, jatorrizko ohituraren arabera, hitzarmenez onartu zeneko ageriak zer zioen ikus besterik ez dugu J. Goñi Gaztanbidek 1997an argitaratu zuen *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona* deritzan I. liburukiko 269. orrialdean datorren 305 zenbakidun dokumentoa, non dioen: «*Erit autem talis differentia inter Orti Lehoarriz et Açeari Umea et successores eorum, quod Orti Lehoarriz faciet ut lingua Navarrorum dicatur unamaizter eta Açeari Umea faciet buruçagui, quem voluerit.*»

Beraz, hori irakurriz ez dago inondikako zalantzarik *Lingua Navarrorum* euskara zela eta ez beste.

Fernando Katolikoak 1512an Nafarroa hartu zuenetik, Albret erregea destronaturik, bere alde hain leialak zituen agramondarren alde maizago jaikitzen omen ziren nafar euskaldunak eta horregatik, Karlos V. Enperadorearen denboran, ahalegintzen omen ziren ipiztiku gaztelarrrak jartzen. Hortaz ikusi berriz ere F. Idoateren *Esfuerzo bélico de Navarra en el siglo XVI* liburu beraren 219. orrialdea.

Baina, Trentoko Kontzilioaren eraginez, doktrinak herriaren hizkuntzan jartzea gomendatzen zen. Iruñeko Apezpikutegiaren Pastoral bisitetatik ikus ditza-

kegunez, gaztelaniarik ulertzen ez zuten herrietan euskaraz egitea gomendatzen zuen. Hala dakar J. Goñi Gaztanbidek *Historia de los Obispos de Pamplona* (1985) deritzan obraren IV. liburukiko 390. orrialdean.

Trentoko aginduen arabera bideratu zen auzia, baina ez zenbait eragozpen sortu gabe. Nafarroan 1584ko Pastoral bisitak erakusten dutenez, Allingo Eulz herrizka-koek euskararik ez zekien abatea jarri zitzaielako eta sortu zituzten etabaidak hor daude J. Goñi Gaztanbideren obra horretan, 479-480. orrialdeetan. Hala eta guztiz ere, 1590. urtean idatzi ziren *Constituciones synodales*-etan finkatu ziren ordea, Pedro de la Fuente ipiztikuaren denboran, doktrina irakasteko arau zehatzak.

Garai hartan euskaraz ezagutzen zen doktrina bakarra Sancius de Elsok Iruñean 1561ean argitara emandako *Doctrina Christiana* zen, gaztelaraz eta euskaraz egina. Eta 1621ean Utergako (Ilzarbe ibarra) erretore zen Juan Beriainen mezatarako eskuliburu argitaratu zuten Iruñean bertan. Honen xehetasunak egoki eskaini zizkigun Aingeru Irigarai, A. Apat-Echebarne izenordepean argitara eman zuen *Noticia y viejos textos de la «Lingua Navarrorum»* (1971) liburua 97-101. orrialdeetan.

Gerora, Espainiako Administraritzak zuzen jarraitu zuen Errege Carlos III.aren *Real Cédula de 23 de junio de 1768* delakoarekin markatu zuen bidea, lehen eta bigarren mailako eskola guzietan irakaskuntza gaztelara hutsean emateko, «*únicamente en lengua castellana*». Ohi bezala, hor erori ziren gure foruzale borrokatuak ere. Ulerkaitza baina egia.

*Diario de Navarra*-tik hor ari izan zaigu Ollarra, oilarkeriak egin nahirik, baina oilandaren gisa. Batetik, *Lingua Navarrorum* ez zela euskara sinestarazi nahian eta, bestetik, egunkari hortan euskara batuaren aurka gipuzkera eta inoiz bizkaierazko artikulueri leku eginaz. Ohartzuten ez delarik, edo ohartzetik nahi ez duelako, Euskaltzaindiaren gomendiozko euskara batuak nafarreran duela bere muina, euskalkiz inoren muinik izatekotan behintzat.

Jakin nahi duenarentzat, lekukoak hor daude. Beraz, zergatik ez kezka gaur egun gertatzen ari denaz?

Nafarroan euskararekin egiten ari direnari bidegabekeria deritzat. Bereziki giza eskubideen aurka doalako. Pekatu hon-taz, hizkuntzarekiko eskubideak herrialdeekin ezer ikustekorik ez dutela dioten jurista horiek isilik daude.

Eta hara hor, Nafarroan Herrialdeak erabat zaiturik, kasta desberdinekoak balira bezala *apartheid* lotsagarrien erara

jokatuz: a) euskalduna, b) elebiduna, d) gaztelaraduna. Kontuan eduki gabe, adibidez, herri euskaldunetan badirela euskararik ez dakitenak eta, industrializatzearen eraginez, baita ere Tafallan zein Tudelan euskaldunak. Hala denean, gizon bakoitzak zuzenean, berarekin edo nora darama foru pertsonala, herkidego edo komunitate baten barnean beste era

batetan ezinezkoa delako giza eskubideak hautsi gabe. Espainiako Konstituzioaren Titulo preliminar delakoaren 1, 2 eta 3. artikuluen arrian ez da zuzena herkidego edo komunitate baten barnean. Bestalde, ONUren ageri hark dioena ongi uler eta zuzenbidea joka badezakegu inongo politikoez ez lukete horrelakorik egin behar. Euskaltzaindiak arrazoiz salatu zuen giza-  
eskubideen kontra doan nafar politikoen jo-  
kaera hori (ikus *Euska-*

*ra*, XL, 1995, 555-562). Politikoen hiritarrei bakebideak eskaini behar dizkiete, eta ez elkarren arteko iskanbilak sortarazi. Nafarroako historia zerbait ezagutzea aski da jakiteko *Lingua Navarrorum* bertako hizkuntza jatorra zela; euskara eta ez erromantzea.

Hutsune horri nolabaiteko konponketa eman nahirik edo, oraintsuago, Nafarroako Forua Hobeagotzeko sortu zen erakundeak, garapenerako lorpenez Euskararen Legearen 17. artikulua erantsi dio, jadanik zerbait bideratzeko asmoz egina dela esango nuke. Baina, hala balitz ere, ez zait aski iruditzen. Oraindik *apartheid* horrek hor jarraitzen du, gure erresuma zaharreko herri guzietan eskubide berdinik eskaintzen ez duena. Eta horren ondorioazko ageriak ere hor ditugu. Elebidun herrialdean hara zer gertatu zen Nafarroako Epaitegi Gorenak Barañaingo Udalaran kontra jarri zuen auziaz. Horren adibiderik egokiena Euskaltzaindiaren salakuntza izan zen, Bilbon 1997ko apirilaren 25ean sinatua (ikus *Euskara*, XLII, 1997, 193-196, orr.).

Gertatutakoak gertatu, Nafarroako Gobernua entzungor egiten ari da eta orain ez dio baimenik eman nahi aspalditik ari den euskarazko irratitari.

Argi ikus daiteke garai batean erresumari saldukeria egin zioten Beaumont taldearen jokabide beraren jarraitzaile direla eta ez nafar erresumari hain leial jarraitu zion Agramont taldearena. Baina bere herriaren alde gizontasunez begiak iratzarririk adi egon nahi duenak, Arturo Campionen *Navarra en su vida histórica* (1929) deritzan liburuari berrirakurketa ematea komeni zaio. Gainera, Campioni, gizon zuzen guzietan bezala, jakintza gogoaren eraginak, adinean sartuz geroztik bidetik iruditu zitzaion *Lingua Navarrorum* eredugarri har eta, ikasi ez ezik, euskaraz idatzi ere bai.

hirusta



UNAI ITURRIAGA

## Fikzioaz

**K**ale kantoi honetan jarrita nengoen lehengo batean ere. Kale kantoiaren jarrita karbono monoxidozko ahokadez nire barrenak asetzen lagun bat agertu zitzaidanean. Nire lagunek bi gauza on dauzkate: beti ekarri ohi dute zerbait besapean, libururen bat edo, eta beste alde batetik, denbora gutxi egin ohi dute nire ondoan. Beraiek zutik egon behar dutelako eta ni jarrita nagoelako seguruasko.

Ardo trago bat eskaini nion. Gero une batez igarotzen zen jendeari eta kotxei begira egon ginen ardoaren garestitzeak gure mikromunduan izan ditzakeen ondorioez berrikeretan. Euroak edo industri birmoldaketak baino askoz ere eragin suntsigarriagoak izan ditzakeela ondorioztatu genuenean, alde egitea erabaki zuen lagunak besapean zekarren liburua nire izter gainetan utzita.

—Hurrengo batean fikzioari buruz hitz egingo diagu!— esan zidan bidea gurutzatzen ari zela.

*Biziaren Azala* zuen izenburua liburuak, Xanti Iparragirrerena. Beste zereginik ez eta irakurtzeari ekin nion. Arratsaldeko argi ordu laburrak ez ziren traba izan begiak estutuz liburua eserialdi batean irentsi nezan. Bospasei ardo trago behar izan nituen errealtate gordin hura eztarrian behera igaroarazteko.

Nire laguna putakume bat da. Orain badakit zer esan nahi izan zidan azken esaldi harekin. Fikzioaren mugetan orotariko sentipenak islatzen saiatzen garenok ez dugula sekula halako testu indartsurik lortuko. Arrazoi du gainera kabroi halakoak!